



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindegua Santesteban
Martxel Elizalde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte
Ezeziel Loiarte Santesteban
Txomin Hualde Elizalde

2026ko martxoaren 31an, 19:30tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTA ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea, 2026ko urtarrilaren 20koa.

2. BAZTAN-BIDASOA ESQUALDEA GARATZEKO LANKIDETZA HITZAMENA ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu du.

ELKARTU DIRA:

Baztango, Zubietako, Iturengo, Eratsungo, Beintza-Labaiengo, Urrozko, Donamariako, Oizko, Elgorriagako, Bertizaranako, Berako, Lesakako, Arantzako, Igantziko, Etxalareko, Sunbilla, Doneztebeko/Santesteban, Saldiasako, Urdazubi eta Zugarramurdi Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz eta Cederna Garalur Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz.

AURREKARIAK

Hitzarmen hau Baztan-Bidasoa eskualdean elkarlanean aritzeko beharretik sortu zen.

Duela urte batzuetatik hona, hitzarmen honen parte diren udalek hainbat proiektutan dihardute eskualdearen onerako elkarlanean, Cederna Garalur erakundearen bitartez.

Orain arte landutako dinamiken arabera, Cederna Garalurrek hainbat proiektu gauzatzeko langileak jartzen ditu eskualdearen esku, hala nola elikadura-sistema, turismoa, merkataritza eta eskualdea suspertzeko plana.

Eskualdeko beste proiektu batzuk ere badaude, hala nola, Lanbide Heziketako Zentroa eta ZUNDA zentroa, une honetan hitzarmenean sartzen ez direnak baina Baztan Bidasoaren eskualdeko estrategiaren parte direnak.

Helburu nagusia, guztion onerako lan egingo duen eskualdea eraikitzea da, globalean pentsatzea eta tokian tokikoan jardutea. Lokalismoa garapen parte-hartzaileagatik aldatzea, eremu lehiakorra eta erakargarria izateko eta ekiteko eta ideiak eraikitzeko kultura sortzeko kontakizun komun bat sortzea.

Kontzeptu orokorra da eskualde ahalik eta kohesionatuena lortzea, proiektu estrategikoetan aurrera egitea, lurralde-elkartasunean lan egitea, behar diren giza baliabideak jartzea eta, horretan guztian oinarrituta, finantziazio-aukera onenak bilatzea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Lankidetzeta-hitzarmen hau eskualdeko udalek sinatzen dute, sinetsita eskualde mailan elkarrekin lan egitea ezinbestekoa dela Baztan-Bidasoaren garapena egoki sustatu eta aukerak aprobetxatzeko.

HELBURUA

Hitzarmen honen **helburuak** hauek dira:

1.- Baztan-Bidasoako Aktibazio Planean, Turismo-sektorean, Tokiko Elikadura sistemetan eta tokiko merkataritzan sortzen diren premiei eta aukerei erantzungo dien ekintzak batera garatzea, horrela, ahaleginak eta erabilgarri dauden baliabideak antolatzeo eta koordinatzeko.

Hortaz, lana bost esparrutan egituratuko da:

- Aktibazio plana eta eskualdeko enpresekin lana.
- Turismoaren garapena
- Elikadura sistemaren garapena
- Eskualdeko merkataritza zerbitzua (Mincotur, top topa, izoki...)
- Hiltegia

Esparru hauetan, helburu nagusiak dira Baztan - Bidasoaren sustapen bateratua eta Proiektu estrategiko propioak nahiz ekimen pribatuarekin batera landutakoak martxan jarri.

2.- Baztan - Bidasoa eskualdearen garapen jasangarrian parte hartzea, tartean diren udalen interesei erantzunen dieten ekintzak eta proiektuak bultzatuz.

3.- Erabakiak arin hartuko direla bermatuko duten mekanismoak ezartzea, betiere beharrezkoa den laguntza teknikoarekin.

Udalbatzak aho batez **erabaki du:**

- 1. Baztan-Bidasoa eskualdea garatzeko lankidetzeta hitzarmena onartzea eta alkateari sinatzeko boterea ematea.**
- 2. Erabaki honen jakinarazpena Cederna- Garalur erakundeari bidaltzea.**
- 3. HERRIKO ETXEKO 2.SOLAIRUA EGOKITZEA HAINBAT ERABILERA GELA EGITEKO OBRAREN PROIEKTUA ETA PLIEGOAK ONARTU. PDR DIRULAGUNTZA.**

344E/2025 ebazpena, abuztuaren 25ekoa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana zeinaren bidez aldatzen baitira 7119.02.01azpineurriaren oinarri arautzaileak, kontuan izanda zer lankidetzeta-hitzarmen sinatu diren tokiko ekintza taldeekin beren partaidetzazko landa garapenaren estrategiak (LEADER) gauzatzeko, Nafarroako 2023-2027 NPEPEaren esparruan. Oinarri arautzaileak abuztuaren 16ko 178E/2023 Ebazpenaren bidez onetsi ziren, eta 271E/2024 Ebazpenaren bidez aldatu.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

“*Herriko etxeko 2.solairua egokitzea hainbat erabilera gela egiteko*” obraren memoria teknikoa aurkeztu zuen, Chocarro y Urmeneta arkitektoek.

2026ko martxoaren 5eko erabakia ikusirik, Zubietako udala dirulaguntzaren onuradunetarikoa bat Zubietako udala izan zen, 46.782,50 euroko dirulaguntzarekin.

Aurrekariak kontuan hartuta eta kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzak honako hau aho batez erabaki da:

1. Onestea “*Herriko etxeko 2. solairua egokitzea hainbat erabilera gela egiteko*” obrak kontratatzeko espedientea, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua sinplifikado prozeduraren bidez esleitzeko.
2. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.
3. Gasturako baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo suntsiarazpena, dagokion ekitaldian dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.
4. Lizitazio argitaratzea Nafarroako Plataforma Elektronikoaren Atarian (PLENA). Gonbidapenak hurrengo enpresei bidaltzea: Betilan Eraikuntzak, IM Arrixko Igeltseritza, Construcciones Elizaga Mugika SL, Construcciones Espelosin eta JL Iratzoki, hilabete bateko epea emanaz proposamenak aurkezteko.

4. GARBIKETA KONTRATAZIOA.

Kontratazioa bukatzen dela ikusita, kontrataziorako prozesua irekitzea beharrezkoa ikusi dute udalkideek. Oraingoan, Udal eraikinei (aurretikan kontratazioaren barnean zeudenei), eta hasierako prezioa 2.200€an ezarri da. Udalburuak bozkatzera deitu du:

Udalbatzak aho batez **erabaki du:**

- 1.- **Kontratazioa 2.200€tan ateratzea.**
- 2.- **Kontratazioa Iragarrietako Oholean argitartzea.**
- 3.- **Proposamenak aurkezteko epea ematea 2026ko apirilaren 29 arte.**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

5. M8 KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Ikusita Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek Martxoaren 8ko, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta sustatutako adierazpen instituzionala, "Feminismoari esker... gaur izan, egon, esan eta erabaki dezakegu" lelopean, zeinaren testua erabaki honi erantsita baitago. Kontuan hartuta Toki Entitate honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta giza eskubideak defendatzeko duen konpromisoa.

Udalbatzak aho batez **erabaki du**:

- 3. Toki Entitate hau Martxoaren 8ko, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta egindako adierazpen instituzionalari atxikitzea, haren edukia bere eginez.**
- 4. Erabaki honen berri ematea dagokion udal zerbitzuei, baita argitaratu eta zabaltzea ere.**
- 5. Erabaki honen ziurtagiria Malerreko Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuari bidaltzea.**

M8ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – FEMINISMOARI ESKER... GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek ezinbesteko errealitate bat gogorarazi nahi dugu: gaur egun barneratuta ditugun eta gure eguneroko bizitzaren parte diren eskubide eta askatasun asko mugimendu feministaren borrokei eta historian zehar emakumeen antolamendu kolektiboari esker lortu dira.

Diskurtso antifeministen edo erreduktionisten bidez feminismoa zalantzan jartzen edo deslegitimatzen den testuinguru sozial batean, haren eginkizun erabakigarria aldarrikatu behar da garapen sozialean, eskubideen hedapenean eta sistema demokratikoaren indartzean. Feminismoa ez da eguneroko bizitzatik kanpo geratzen, ezta ideologia iragankor batetik kanpo ere: indar historiko bat da, pertsona guztien bizitza eraldatu duena, gizon zein emakume, eta bizi garen oraina ahalbidetu duena.

Azken mendean zehar, eta ez erresistentziarik gabe, feminismoak funtsezko mugarrak bultzatu ditu, egun zalantzan jartzen ez direnak. Borroka horiei esker, emakumeek boto eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea lortu zuten; berdintasunean hezteko eskubidea; lan ordaindua, norberaren dirua kudeatzeko eskubidea eta autonomia ekonomikoa; mugitzeko askatasuna; dibortzioa; eta norberaren gorputzari buruz erabakitzeko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak barne. Era berean, feminismoa funtsezkoa izan da zainketen banaketaren balio soziala eta ekonomikoa ikusarazteko eta aldarrikatzeko, horiek gabe ezin baita bizitza sostengatu.

Aurrerapen horietako bakoitza ez zen ezerezetik heldu, ez ziren egun batetik besterako prozesuak izan. 300 urteko oinarri teorikoaren, hausnarketa kritikoaren, mobilizazioaren eta emakume belaunaldien iraunkortasunaren emaitza dira. Hala ere, borroka horiek deslegitimatzen, minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoak ugaritzen ari dira gaur egun, berdintasuna lortuta dagoela esanez edo feminismoa mehatxu gisa aurkeztuz. Diskurtso horiek, historiari ezikusiarrena egiteaz gain, arriskuan jartzen dituzte konkistatutako eskubideak, eta zaildu egiten dute berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egitea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Horren aurrean, berresten dugu feminismoa justizia sozialerako aldaketaren motorra izan dela eta izaten jarraitzen duela, eta horrek eskubideak ugaritu dituela, ez bakarrik emakumeentzat, baita jendarte osoarentzat ere. Haren balio historikoa eta egungo indarraldia aitortzea erantzukizun instituzional eta demokratikoa da.

Honengatik guztiarengatik, adierazpen hau sinatu dugun toki eta lurralde erakundeok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- **Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak bultzatzea**, feminismoaren lorpen historikoei eta horrek eguneroko bizitzan izan duen eraginari balioa emateko, diskurtso antifeministen aurrean herritar informatu eta kritikoak izan gaitezen.
 - **Tokiko politika publikoetan genero ikuspegia zeharka txertatzea**, berdintasunerako benetako aurrerapausoak bermatuz.
 - **Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza indartzea**, desberdintasunei eta indarkeriei aurre hartzeko funtsezko tresna gisa, batez ere gazteen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanez.
 - **Mugimendu feministaren eta elkartegintzaren lana aitortzea eta babestea**, kohesio sozialari, justiziarri eta demokraziari egindako ekarpen historikoa eta egungoa baloratuz.
- Ekintza horiek guztiak Nafarroa bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta demokratikoagoa eraikitzen lagunduko dute, konkistatutako eskubideen defentsarekin eta hedapenarekin konprometitua. Izan ere, gaur egun eskubideez eta askatasunez gozatzen badugu, borroka kolektiboari esker da. Feminismoak ekarri gintuen honaino. Feminismorik gabe ez dago erabateko demokraziarik. Berari esker, GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU.

6. ESKAERAK

6.1 Ekaitz Bertiz Apezetxea jaunak, "Joalduna" proiektuaren zuzendaria da eta film laburra grabatuko dute otsailean, Joaldunaren pertsonaia hartuko duena ardatz nagusi gisa. Proiektuari aurre egiteko aportazio ekonomikoa edo bestelako kolaborazioa eskatzen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- "Joalduna" film laburra grabatzeko 100 euroko dirulaguntza ematea.**
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

*** Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau eztabaidatu da:***

ESTALPEAREN ATEA KONPONKETA

2025eko abuztuaren 12ko 2025/43 alkate ebazpena bidez, Zubietako gazteei baimena eman zitzaieen herriko bestetan, estalpean, taberna bat jartzeko. Baldintza zehatz batzuk aipatzen ziren, haien artean: "Sortutako kalteak eskatzaileek bere gain



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

hartuko ditu." Bestak eta gero sortutako kalteak ikusirik, Udala gazteekin elkartu zen eta udalak estalpeko atea konpontzea adostu zen, gastua gazteei pasatuz.

Konponketa egin eta gero faktura *Mikel Mutuberriarena Zurgindegia, S.L.* da 2026ko martxoaren 9ko 000021 zenbakiduna duena eta 1.568,52 euroko kantiitatekoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

1.- Gazteek 500 euro ordaindu beharko dute.

2.- Akordioa interesatuei jakinaraztea

7. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (9/2026tik 29/2026tara ebazpenak). Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Herriko gaiei buruzko informazioa ematen da:

Patricia Tellechea Ochandorena andreak erantzukizunpeko adierazpena 1 poligonoko 109 lurzatian zuhaitzak botatzeko---Landa Garapenako Ingurumeneko Departamentuko 25/2026 ebazpena, otsailaren 10ekoa sakabanatutako zuhaitzatzen aprobetxamendua baimenduz--- Landa Garapenako Ingurumeneko departamendura Miguel Loyarte jaunaren baimen eskaera --- Nafarroan gaztainondoaren kulturak izan duen eboluzioaren ezagutzarako artxiboen aztertze aurretiko lanaren azalpenak eta udal artxiboan begiratzeko baimena eskaera.

9. GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.